

IGANTZIKO ESKOLAKO JANGELA EGOKITZEKO OBRA KONTRATUA

-ESLEIPEN PROPOSAMENA-

- **TOKIA:** Igantziko Herriko Etxea.
- **EGUNA:** 2025-06-10
- **ORDUA:** 14:00
- **KONTRATUAREN XEDEA:** Igantziko eskolako jangela egokitzeko obra kontratua.
- **PROZEDURA:** Irekia.
- **UNITATE KUDEATZAILEA:** Nagore Madariaga Iriarte, Igantziko Udaleko idazkaria

Igantzin, 2025eko ekainaren 10ean, goizeko 14:00etan Igantziko Herriko Etxean egindako barne ekitaldian, Unitate Kudeatzaileak maiatzaren 12ko 73/2025 Alkate Ebazpen bidez onartutako plegu arautzailean xedaturiko "Igantziko eskolako jangela egokitzeko obra kontratua" lizitazioaren izapideekin jarraitu du.

Horri dagokionez, 2025eko ekainaren 6an LARRETA LANAK, S.L. enpresari plegu arautzaileko 15 klausulan xedaturiko dokumentazioa aurkezteko errekerimendua egin zitzaion. Aipaturiko enpresak 2025eko ekainaren 10ean dokumentazioa aurkeztu du. Dokumentazio aztertu da eta honako hau zuzena dela ondorioztatu da.

Plegu arautzaileko 16 klausulan xedaturikoari jarraiki Unitate Kudeatzaileak ondorengo **PROPOSATU DU:**

I.- Igantziko eskolako jangela egokitzeko obra kontratua LARRETA LANAK, S.L.ri (IFK: B71322572) esleitzea 54.368,98tan (BEZ kanpo).

II.- Esleipendunari jakinaraztea, eskaintza bakarra aurkeztu denez, ez dela esleipenaren eraginkortasuna etenen.

III.- Esleipendunari jakinaraztea, esleipenaren jakinarazpena jaso eta, 15 egun naturaleko epean, kontratua administrazio agirian formalizatuko dela.

IV.- Esleipendunari jakinaraztea, kontratua formalizatu aitzinetik, plegu arautzaileko 18. klausulan xedaturikoaren arabera, esleipen kopuruaren (BEZ kanpo) %4ko behin betiko bermea paratu beharko duela, hau da, 2.174,76 €. Epe berean, plegu arautzaileko 19. klausulan zehazturiko bertze agiriak aurkeztu beharko ditu, hau da:

- Erantzukizun zibileko aseguru-poliza. Horretarako, aseguru-etxearen ziurtagiria aurkeztuko du, aseguru badagoela eta indarrean dagoela egiaztatzen duena, eta berariaz adieraziko du erantzukizun zibilaren estaldura (oinarrizkoa, ustiapena, higiezinena, subsidiarioa eta lanen ostekoa). Ziurtagiri horrek, gutxienez, obra gauzatzeko denbora eta obrak jasotzeko aktatik hiru urteko epea estaliko ditu, eta ezbeharragatik eta aseguru-urteagatik aseguraturako kapitala adieraziko du. Era berean, "Eraikuntza Arrisku Orotarako" Aseguru Poliza bat duela eta indarrean dagoela ziurtatuko da, obra gauzatzeko aldia barnean hartuta, eta obraren zenbatekoa aseguraturako kapitalarekin.

- Laneko Segurtasun eta Osasun Plana.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako hau sinatzen dut.

Igantzin, 2025eko ekainaren 10ean.

UNITATE KUDEATZAILEA,
IDAZKARIA,
Nagore Madariaga Iriarte